

EUSKADIKO ZIBERSEGURTASUNAREN LIBURU ZURIA

- **Zibersegurtasunaren alorrean 109 erakunde katalogatu dira Euskadin.**
- **Lurralde berean zibersegurtasun zerbitzuen eskari handia eta konponbideen eskaintza oso bat batzeak Euskadiri nazioartean inbertsio eta ekintzailtza ekosistema oso interesgarria bihurtzeko aukera ematen dio.**

Gaur egun, gizarteak teknologia adoptatzeak sektore publiko eta pribatuentzako erronka bat suposatu du, eta hauek gaur egungo garapenean parte hartu behar izan dute, gizartearen eta merkatuaren eskakizun berriak asetzeko, teknologia berriak beren garapenean geroz eta abiadura handiagoarekin integratzen direlako.

Teknologia berriak hartzeak gizartearen, erakunde publikoen eta enpresen transformazio digitala ekarri du. Transformazio horrekin batera, mehatxu eta arrisku berriak agertu dira.

Europako Batzordeak berak, mehatxu eta arrisku berrien eragina gutxitzeko helburuarekin Europar Batasunean (EB), zibersegurtasun estrategia bat markatu du, helburu bezala askatasun eta demokraziaren balore europarrak sustatzea eta ekonomia digitalaren hazkunde seguru bat zaintzea izanik. Horretarako, duela gutxi zenbait araudi eta zuzentarau onartu ditu, horien artean, NIS Zuzentaraua, ordenagailuen sistemen zibererresilientzia indartzeko helburuarekin, sarean delinkuentziaren inpaktua murriztuz eta EBeko (zibersegurtasuna eta nazioarteko segurtasun zibilen politika indartzea.) zibersegurtasun eta ziberdefentsa internazionalaren politika indartuz.

Bestalde, Datuen Babeserako Araudi Orokor berriak (EB) 2016/679, (aurrerantzean DBAO), Europako Parlamentuak apirilaren 27an onartua, Europako Batasunaren datuen babesaren arloan esparru juridiko berri bat suposatu du. Araudi honek pribatutasun printzipioak indartu eta kaltetutako pertsonen eskubide eta betebeharrak arautzen ditu, hori guztia *accountability* printzipio berriaren oinarrituta, erantzukizun proaktiboa izanda, beraien eragiketarako datu pertsonalen tratamendua dakarten erakundeei diligenzia betebeharra ezarrita.

Testuinguru honetan, **Euskadi**, gizarte moderno eta aurrerakoi baten adibide bezala, gizarte-kohesio, **segurtasun eta erresilientzia** handiagoa duen eredu baterantz mugitzen ari da. Horregatik, Euskal Gobernuaren bultzadari esker, **Basque CyberSecurity Centre** ezarri zen (hemendik aurrera BCSC edo

info@bcsc.eus | 945 010 059

Parque Tecnológico de Álava
Albert Einstein. 46-3ª – Ed. E7 01510
Vitoria-Gasteiz



Zentroa), Enpresa Garapenerako Euskal Agentziaren (hemendik aurrera EGEA) antolakuntzan sartzen dena, Eraldaketa Lehiakorrerako Sozietatea, S.A.-ren (hemendik aurrera Grupo SPRI) barruan, Gobernuaren Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailaren menpeko sozietatea.

Euskal zibersegurtasun ekosistemaren egoera orokorraren irudi bat izateko, ondorengo **ikerketa** burutu da, zibersegurtasunaren sektorearen analisi bat erakusten duena, sektorearen irtenbideak eta aukerak bezalako alderdi garrantzitsuak eta **Euskadin zibersegurtasunari eskainitako erakunde**en gaur egungo egoera zehatza barne.

info@bcsc.eus | 945 010 059

Parque Tecnológico de Álava
Albert Einstein. 46-3ª – Ed. E7 01510
Vitoria-Gasteiz

